## EUSKADIRA DATOZEN TURISTA ETA BISITARIENTZAKO **GIZABIDE DEKALOGOA**

## **DECÁLOGO DE CIVISMO** PARA TURISTAS Y VISITANTES DE EUSKADI

Ondare naturala eta kulturala herri guztiena da, goza ezazu, gorde itzazu haien balore unibertsalak eta saihestu haien biziraupena arriskuan jar dezaketen eragin negatiboak.

*El Patrimonio Natural y Cultural pertenece a todos los pueblos, disfrútalo, preserva sus valores universales y evita impactos negativos que comprometan su supervivencia.*

Ez sartu espezie inbaditzailerik eta ez hartu babestutako flora eta fauna, ezta espezie horietatik eratorritako produkturik ere. Ez atera materialik interesekoak diren eraketa geologikoetatik.

*No introduzcas especies invasoras ni adquieras flora y fauna protegida, ni productos derivados de dichas especies. Tampoco extraigas material de las formaciones geológicas de interés.*

Ekidin zarata egitea balio natural eta kultural handiko guneetan eta ez eragin soinu-distortsiorik.

*Evita el ruido en las zonas de mayor valor natural y cultural y no introduzcas distorsión acústica.*

Ez egin surik, horretarako egokitutako guneetan izan ezik; ez bota zigarrokinik zorura, itzaltzeko zailak izan daitezkeen suteak eragin baititzakete, bereziki basarteetan eta eremu menditsuetan.

*No hagas fuego, salvo en las zonas habilitadas para ello, ni tires colillas al suelo ya que podrían provocar incendios difíciles de sofocar especialmente en zonas boscosas y áreas montañosas.*

Ez kontsumitu beharrezkoa den baino ur eta energia gehiagorik, eta kudeatu hondakinak modu arduratsuan, hau da, ez utzi zaborrik edozein lekutan eta erabil itzazu bereizketa selektiborako edukiontziak.

*No consumas más agua y energía de la necesaria y deshazte de los residuos de forma responsable sin dejar basura a tu paso, utilizando los contenedores de separación selectiva.*

Erabili ahalik eta gutxien autoa edo motorra. Joan oinez, bizikletaz edo garraio publikoan ahal duzun guztietan.

*Minimiza tus desplazamientos en coche o en moto. Organiza traslados a pie, en bici o con transporte público siempre que puedas.*

Aukeratu establezimendu turistiko arduratsuak, hau da, birziklapenaren, energia eta ura aurreztearen, eta tokiko komunitatea zein ondare naturala eta kulturala errespetatzearen alde egiten dutenak.

*Elige establecimientos turísticos responsables que tengan en cuenta el reciclaje, el ahorro de energía y agua, y el respeto a la comunidad local y al patrimonio natural y cultural.*

Ahal baduzu, kontsumitu tokiko produktuak; bertako gastronomiaz, kulturaz eta artisautzaz gozatzeaz gain, ingurua babesten eta garapen jasangarria sustatzen lagunduko duzu.

*Si tienes ocasión consume productos locales, porque además de disfrutar de la gastronomía, cultura y artesanía locales, estás contribuyendo a la conservación y desarrollo sostenible del entorno.*

Errespetuz trata itzazu besteak, haien duintasuna gordez, berdinetik berdinera.

*Trata a las personas con respeto, preservando su dignidad, tratándolas de igual a igual.*

Hedatu bisitatzen duzun inguruaren edertasuna eta interesa; izan ere, turismo arduratsuaren alde egiten baduzu, denboran zehar iraungo du.

*Difunde la belleza e interés del entorno que visites, ayudando a que un turismo responsable en la zona, contribuya a su mantenimiento a lo largo del tiempo.*



# ARABAKO ERRIOXA EZAGUTZEKO GAKOAK...

## DESCUBRE RIOJA ALAVESA A TRAVÉS DE...

### 1 HISTORIA
### SU HISTORIA

Altxor arkeologikoak: trikuharriak, historiaurreko herrixkak, landa-dolareak; ardoaren inguruan eskualde honek bizi izandakoaren lekuko.

Ibilbide bat historian, ondarean eta kulturan barrena, XII. mendeko lurpeko upategiek zeharkatutako sarean, arkitekto abangoardistenek diseinatutako XXI. mendeko "katedral" ikaragarrien azpian. Ezagutu gure historiaren sekretuak eta isilpeko kontuak. Zure kasa edo bisitaldi gidatu bidez egindako ibilaldiak Arabako Errioxaren idiosinkrasia landu duten garai erabakigarrienetako bakoitzera eramango zaitu.

*Restos arqueológicos: dólmenes, poblados prehistóricos, lagares rupestres; dan fe de los tiempos vividos en la comarca entorno al vino.*

*Un recorrido por la historia, el patrimonio y la cultura surcado por bodegas subterráneas del siglo XII, que conviven bajo las imponentes "catedrales" del siglo XXI, diseñadas por los arquitectos más vanguardistas. Descubre los secretos y entresijos de nuestra historia. Un recorrido a tu aire o con visita guiada te remontará a cada una de las épocas decisivas en el labrado de la idiosincrasia de Rioja Alavesa.*



### 2 ERDI AROKO HIRIBILDUAK
### SUS VILLAS MEDIEVALES

Erdi Aroko hiribildu multzo bat nagusitzen da Arabako Errioxako ardoaren paisaian. Eskualde osoan barrena hedatutako 19 hiribildu. Haietako batzuek duela 800 urte baino gehiago jaso zuten beren hiri-forua eta eskualdeko ondare-aberastasunaren lekuko ditugu. Beren nortasuna gorderik, garbi-garbi eta kontu handiz berreraikita topatuko ditugu, bisitariari Erdi Aroaren funtsa bere osotasunean eskaintzeko. Elciegon, Labastida/Bastidan eta Laguardian, turismo-bulegoek bisitaldi gidatuak eskaintzen dituzte. Beste herri batzuetan, hala nola Labrazan eta Gatzaga Buradonen, arestian adierazitako bisitaldiez gain bisitaldi teatralizatuak eskaintzen dira bertako historiaren berri modu atseginean emateko. Nabarmendu behar da Labastida/Bastidaren, Labrazaren, Laguardiaren eta Gatzaga Buradonen herrigune historikoa monumentu-multzo gisa babestuta dagoela.

*Un conjunto de antiguas villas medievales preside el paisaje del vino en Rioja Alavesa. 19 villas repartidas por toda la comarca. Algunas de ellas cuyo fuero de población recibieron hace más de 800 años, dan fe de la riqueza patrimonial de la misma. Intactas, involutas, reconstruidas con exquisita delicadeza para ofrecer al visitante en plenitud la esencia de la Edad Media. En Elciego, Labastida/Bastida y Laguardia, las oficinas de turismo ofrecen visitas guiadas. En otras como Labraza y Salinillas de Buradón/Gatzaga Buradon, además de las anteriormente citadas, se ofrecen también visitas teatralizadas para dar a conocer su historia de manera amena. Destacar que Labastida/Bastida, Labraza, Laguardia y Salinillas de Buradón/Gatzaga Buradon tienen su casco histórico protegido como conjunto monumental.*




| IKURRAK | SIMBOLOGÍA |
|---|---|
| Informazioa | Información |
| Hiribildu Harresiduna | Villa Amurallada |
| Trikuharriak | Dólmenes |
| Museoak eta Interpretazio-Zentroak | Museos y Centros de Interpretación |
| Begiratokiak | Miradores |
| Landa-dolareak | Lagares Rupestres |
| Arkeologia | Arqueología |
| Atsedenlekuak | Áreas de esparcimiento |
| Autokarabanentzako aparkalekua | Parking Autocaravanas |
| Donejakue bidea | Camino de Santiago |
| Inaziotar bidea | Camino Ignaciano |
| GR 38 Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidea | GR 38 Ruta del Vino y del Pescado |
| GR 99 Ebroko Bide Naturala | GR 99 Camino Natural del Ebro |
| Ibilbideak | Paseos |
| Mendi-ibilbideak | Senderismo |
| Birding Euskadi | Birding Euskadi |

geo euskadi — *Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. geoEuskadi*

### 3 UPATEGIAK
### SUS BODEGAS

Arabako Errioxan 13.500 hektarea mahasti eta Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren Kontseilu Erregulatzailearen gainbegiradapean eta kontrolpean gutxi gorabehera 100 milioi botila ardo produzitzen dituzten ia 300 upategi daude. Upategi mota asko daude, eta guztiek osatzen dute Arabako Errioxaren bihotza.

Upategi batzuk antzinako sakoneretan daude, eta upategi horietan ardogile artisauen ohiturari eusten diote oraindik ere; beste batzuetan hirugarren edo laugarren belaunaldiko mahastizainak izanik, gaurkotu egin dituzte beren instalazioak, familiako mahastien benetakotasuna babestuz. Badira beste batzuk, ehunka urtekoak, handientsuak eta klasikoak, mundu osoko ardozaleen artean begirunea sorrarazten duten izen ospetsukoak. Eta, jakina, munduko arkitekto hoberenetako batzuek diseinatutako abangoardiako arkitekturako upategiak ere badaude, beren forma ziragarriekin.

*Rioja Alavesa alberga 13.500 hectáreas de viñedos y casi 300 bodegas que producen aproximadamente 100 millones de botellas de vino bajo la supervisión y control del Consejo Regulador de la Denominación de Origen Calificada Rioja.*

*Las bodegas, en sus múltiples tipologías, constituyen el corazón de Rioja Alavesa. Las hay ubicadas en calados ancestrales donde aún se mantiene la tradición elaboradora artesana, o de viticultores de tercera o cuarta generación que han adaptado convenientemente sus instalaciones resguardando la autenticidad de los viñedos familiares. Hay otras centenarias, majestuosas y clásicas, cuyos nombres destilan reverencia entre los grandes aficionados de cualquier confín. Y, por supuesto, están las bodegas de arquitectura de vanguardia con sus impactantes formas, que han sido diseñadas por algunos de los mejores arquitectos del mundo.*





### 4 GASTRONOMIA ETA ARDOA
### SU GASTRONOMÍA Y VINO

Esaten dutenez, sibaritek gastronomia hoberenaren eta kalitate bikaineko ardoaren arteko uztartze perfektua bilatzen dute. Bilaketa hori Arabako Errioxako ardoekin egiten bada, emaitza bermatuta dago. Ardoa bizitzeaz gain, askotariko gastronomia bikainaz gozatuko duzu. Leku pribilegiatu honek platerik onenetako batzuk eman dizkio herri-errezeten sortari, hala nola patatak txorizoarekin, saiheskiak xirmendutan erreak, masailak ardo beltzetan edo potxak. Gure sukaldariek jakin dute tradizioa eta modernitatea elkartzen eta miniaturan egindako benetako gozotasunez gain Arabako Errioxako hautatutako ardo hoberenekin uztartutako menuak eskaintzen dizkizute.

*Dicen que es de sibaritas buscar un maridaje perfecto entre la mejor gastronomía y un vino con categoría de excelente… si es con los vinos de Rioja Alavesa, el resultado está garantizado. Además de vivir el vino, disfrutarás de una exquisita y variada gastronomía. Esta privilegiada zona ha legado al recetario popular algunos de sus mejores platos como las patatas con chorizo, las chuletillas al sarmiento, las carrilleras al vino tinto o las pochas. Nuestros chefs han sabido combinar tradición y modernidad y te ofrecen desde auténticas exquisiteces en miniatura hasta menús maridados con una selección de los mejores vinos de Rioja Alavesa.*

### NATURA 5
### SU NATURALEZA

Iparralderantz begiratuta, Toloño Mendilerroa ikusgarria dago, Arabako Errioxaren ekialdetik mendebaldera hedatzen den mendikatea. Nabarmen zutiturik, erliebe malkartsua eta harritsua eskaintzen digu hegoaldeko isurialdean, eta pagadi zabalak iparraldekoan. Aparteko tokia mendi-ibiliak egiteko: ikazkinen ibilbidea, ardoaren eta arrainaren ibilbidea, Toloño Mendilerroaren ibilaldia, eta abar. Morfologikoki nabarmentzekoa da glazi eta terrazen hainbat maila garatu direla, Ebro ibaiari lotutakoak. Bestalde, aipatzekoa da, halaber, inguru honetan Ebro ibaiak daraman ibilbideak meandro handi samarrak sorrarazi dituela. Bi baliabide horiek eta Laguardiako Aintzirak Natura 2.000 Sarekoak dira, eta bertako floraren eta faunaren aberastasun ederra eskaintzen digute.

*Mirando hacia el norte se encuentra la imponente Sierra de Toloño, un sistema montañoso que se extiende de este a oeste de Rioja Alavesa. Destaca por su relieve escarpado y rocoso en su vertiente sur y por sus extensos hayedos en la vertiente norte. Es una zona idónea para practicar senderismo: ruta de los carboneros, ruta del vino y el pescado, travesía Sierra de Toloño, etc. Morfológicamente hay que destacar el desarrollo de varios niveles de glacis y terrazas asociadas al río Ebro, que en este sector presenta un curso formando meandros bastante pronunciados. Ambos recursos, junto con las Lagunas de Laguardia, pertenecen a la Red Natura 2.000, sobresaliendo su riqueza en flora y fauna autóctona.*





### 6 PAISAIAK
### SUS PAISAJES

Arabako Errioxako mahastiak eta ardoaren kultura paisajea babestuta dagoela nabarmendu behar da, 2014. urtetik geroztik, Ondare Kultural gisa, Multzo Munumental arloan. Oso usain berezia nabari da eta begietarako ere opari ederra da Arabako Errioxako lurretan barneratzea. Mahatsondo-ilarek, ardura handiz egindako eraikin modernoek eta dozenaka urte dituzten antzinako bestelako etxetzarrek ibilbide hau presarik gabe egitea eskatzen digute.

Mahatsondoen paisaia aldatu egiten da urtean zehar, eta esan daiteke are gehiago nabarmentzen dela udazkenean, kolore-aukera harrigarria ikus daitekeelako, berdeetatik hasita okreetarainoko kolore-sortarekin, tonu gorrixketatik igarota… Ikuspegi natural horri paisaian zehar barreiatuta dauden Erdi Aroko hiribildu ugariak gehitu behar dizkiogu. Eliza dotoreak bertako biztanleen zaindari eta altxor arkeologikoak antzinako garaien lekuko, Arabako Errioxako ibilbide osoan txertaturik.

*Cabe destacar que el paisaje cultural del vino y el viñedo de Rioja Alavesa está protegido, desde el año 2014, como Bien Cultural con la categoría de Conjunto Monumental.*

*Huele de forma especial y es un regalo para los ojos adentrarse en tierras de Rioja Alavesa. Las hileras de vides, algunas modernas construcciones esmeradas y otras antiguas casonas con décadas de vida, hacen de esta ruta un recorrido para realizar sin prisa.*

*Es el de las vides un paisaje cambiante a lo largo del año, resaltando aún más si cabe en época otoñal, con un impresionante abanico cromático con gamas desde verdes a ocres, pasando por diferentes tonos rojizos… A este paisaje natural, hay que añadir las numerosas villas medievales que salpican el paisaje. Iglesias majestuosas se levantan para cuidar a sus moradores, restos arqueológicos sobreviven al paso del tiempo y se integran a lo largo de toda la ruta por Rioja Alavesa.*


NORBAIT GOGOAN?
PIENSA EN ALGUIEN ESPECIAL

#RegalaRiojaAlavesa



visitriojaalavesa.com

**SARTU** visitriojaalavesa.com **ENTRA**

**AUKERATU** esperientzia **ELIGE** una experiencia

**OPARIA** Arabako Errioxa **REGALA** Rioja Alavesa

**GOZATU** urtebetez **DISFRUTA** hasta un año